

Baso-mutilei zenbait aholku eder (Gizarte Segurantzako Ikuskaritza Sailaren baimenaz)



- Nagusiarekin haserraten bazara, itzali motozerra.
- Pixagura bazara, orduan ere itzali motozerra pitilina atera baino lehen (bazpare)
- Ez erabili motozerra hazkurea arintzeko... ez eta bizarra eta sudurreko iletxoak kentzeko ere.
- Lankide berriei bostekoa eman baino lehen, ez ahaztu motozerra itzaltzea, motel!
- Ez erabili motozerra malabar jokoak praktikatzeko.
- Ez heldu inoiz motozerrari aurretik (CEAC-eko kitarra-ikastaroa izorratu nahi ez baduzu, behintzat)
- Jar zaitetz beti zuhaitza eroriko den aldean... Ezetz, tonto!
- Lana lehenago bukatzeko, itzali motozerra, emaiozu sua basoari eta joan zaitetz aseguru kobratzera.